

EUSKARAREN Berripapera

sumarioa

1 • Euskal Herriko Bertsotzale Elkartearen 1995-1998 balantzea

2 • Pertsonaia:
Anita Anacabe
• Laburrak:
Maite González Esnal
Menuen hiztegia

3 • Renoko Euskal Astea
• Leioa:
merkataritza kanpaina
• HABEren ikastaro eta bideohitzaldiak

4 • Web Guneak
Welsh Language Board
Sareko Argia

Euskal
Herriko
Bertsotzale
Elkartea



Euskal Herriko BERTSOZALE ELKARTEA

1995-1998 balantzea



ARGIA / ALBERTO ELOSEGI

Azken lau urteetan egindakoaren gaineko gogoeta egin du Elkarteak, lau lan ildo nagusiren inguruan: transmisioa, hedapena, ikerkuntza eta komunikazioa.

Transmisioa: hezkuntza

Transmisioari dagokionez, hezkuntza da oinarri eta bertsolaritza lantzen ari dira ikastegietan zenbait irakasle; Lehen Hezkuntzan, batik bat. Aurten, bestalde, udalekoa antolatu da Iparraldean 14 urtez azpikoekin. Era berean, metodologia hobetzeko ahaleginetan ari da Elkarteak, eta EHUKo Pedagogia Departamentuko Lontxo Oihartzabal eta Felix Etxeberria irakasleekin lanean ari da. Bertso eskolak ere lan handia egiten ari dira: oraintxe 86 eskola ditu Elkarteak, hau da, 500 bat ikasle inguru. Gazteak dira bertsolaritzaren geroa, ordea, eta horiei laguntzen ere saiatzen da Elkarteak, aldizkako bilerak eta zenbait ekimen bitarte.

Hedapena: "Lanku" zerbitzua

Hedapena da Bertsotzale Elkartearen bigarren ildo nagusia eta, honetan, gogoeta ari dira hedabideen inguruan. Txapelketak ere guttiz garrantzizko dira eta Nafarroakoa eta Iparraldekoa antolatu ohi ditu urtero. 95ean Gipuzkoakoa eratu zuen, 96 eta 98an

Araba eta Bizkaikoa, eta 97an Txapelketa Nagusia. Eskolarteak ere hor dira, urtero-urterokoak. Txapelketak antolatu ez ezik, eztabaida ere bideratu izan da.

Hedapenaren barruan, hainbat lan eman du argitaratzen Bertsotzale Elkarteak: txapelketetako liburuak, CDak, kaseteak, bideoak, CD-Roma... Epaila eta gai-jartzaileentzako ikastaroak ere antolatu izan dituzte. Atal honetan, azkenik, bertsogintzak plazaz plaza funtziona dezan "Lanku" zerbitzua sortu dute, bertso saioen antolakuntzan laguntzeko eta ekoizpenak merkaturatzeko, batez ere.

Ikerkuntza:

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

3.258 liburu, 895 bideo, 3.573 audio, 4.117 argazki, 1.597 kartel, 1.014 publizitate dokumentu, eta 295 bertsopaper daude gorderik Xenpelar Dokumentazio Zentroan. Erdia baino gehiago, joan den lau urte honetan bildu da. 98an berri zuten ekipo informatikoa eta bertsolaritzaren datu basea egiten hasita daude. Gainera, informazio zentro da askotariko erabiltzaileentzat: hedabide, ikastegi, eta ikertzaileentzat. Dokumentazio Zentro honek, bestalde, grabatzaileen sarea era osaturik du.

Komunikazioa

Hiru sailetan landu dute atal hau: Elkarte bera, euskal gizartea, nazioartea.

Lehenengoan, "Bertsotzale" berripapera argitaratzen da hilerok. Bazkideentzako hiru gogoeta jardunaldi ere egin dituzte.

Euskal gizarteari gagozkiola, bilera egiten dute urtean behin alderdi politikoekin.

Nazioartean, berriz, kanpoko gonbidatuak hartu izan dituzte, bai eta atzerriko jardunaldietan parte hartu ere -Mexikon, Kanarrietan, Kartagenan...-, saioetan kantatuz, eta ponentziak eta komunikazioak irakurrituz.

1999/ 2003 aldirako helburuak

Datozen lau urteetan orain arte bezain eragile izan nahi du Elkarteak. Bertsolaritzaren beharrei erantzunez, lana zuzen antolatuz, Elkartearen ahalmenaren arabera jardunez eta handikerietatik aparte, gogoeta eta barne kohesioari arreta berezia eskainiz. Helburu nagusi horietatik zuzenduko dute Euskal Herriko Bertsotzale Elkartearen lana hurrengo lau urteetan.

laburrak

MAITE GONZALEZ ESNAL,
frisieraz



Idazlearen "Mari-Marietta" liburua frisieraz argitaratu dute. Duela hiru urte kalera zen euskaraz Alberdania etxean, Literatura Sari Nazionalerako hautagaien artean izan zen haurrentzako lana. Oraindik orain, berriz, Frisiako Utjowerij etxeak itzulpena jarri du irakurgai.

Ingelesez irakurri zuten liburua Frisiako argitaletxearen arduradunek, nahiz eta hizkuntza horretan ez den oraindik kaleratu. Itzulpena prest da, hala ere, eta harremanak bideratzea besterik ez dago orain.

Frisieraz baino lehen, galegoz ere argitaratu zuten "Mari-Marietta".

MENUEN HIZTEGIA



Donostiako Cebanc-Cdea Profesionalen Formakuntzarako zentroak egin du, Donostiako Euskararen Udal Patronatoaren laguntzaz. Gastronomía eta

sukaldaritzaren arloari zuzendurik dago, eta taberna, kafetegi, ostatu, edaritegi eta jatetxeen kartak ditu gogoan. Bi atal ditu hiztegiak: lehena, eskema teorikoa dugu; bertan, plateren izenak euskaratzeko arau, aholku, gomendio eta irizpideak azaltzen dira. Bigarren atala, hiztegia bera da. Jon Mendizabal, Jaione Maiz eta Chema González dira egile eta alor honetan aurretik agerturiko hiztegi eta liburuak kontuan hartu izan dituzte beren proposamenak egin dituzten honetan.

pertsoneia

ANITA ANACABE

Euskal komunitatearen alde lanean
EEBBetan



ZALDIERO

1954an jaio zen EEBBetan, Elko-Nevadan, baina euskal-amerikarra da, Euskal Herrietik Nevadara emigratu baitzuten bere gurasoek: Markinako Iruzubietakoa zen ama, Katekoa baserrikoa, eta Berriatukoa, berriz, aita, Anacabe baserrikoa.

Elkon sortu eta hazia, euskararen jabe, euskal komunitatearen aldeko lanetan nabarmendu izan da aspaldion bere herrian. Horretan zeri-kusi handia du herriko kale nagusian duen dendak: Anacabe's Elko General Merchandise Co. non askotariko gaiak saltzen dituzten eta, 1936az gero, euskal artzainen dendarik nagusia izan baitzen.

Euskal ostatuetan, jaialdietan, EEBBetako euskaldunen apaizari mezatan laguntzen, kale agerraldietan argazki egiten, lepoan "Guk euskaraz, zuk zergatik ez?" daraman arrantzale atorra jantzita... euskal giroa non, han ohi da Elkon Anita Anacabe.

Euskaltzaletasun horrexek bultzatuta, gurasoen sorterritik hurre, Markinan eman du 98-99 ikasturtea, bere seme-alabek euskara ikas zezaten: Teresa (13 urte), Andrea (12), Mateo (10) eta Cristina (5).

Markinako Herri-Eskolan ez ezik, kalean, lagunartean eta eskolorduz kanpoko ekintzetan saiatu dira Anitaren seme-alabak: pilotan, saskibaloian, igerian, trikitixa ikastaroetan e.a.

Ama bera ere saiatu da. Gaztelania irakasle da, egun, Elkon, eta Markinako euskaltegira jo izan du hizkuntzaren didaktikan bere burua trebatzeko asmotan.

Beren helburuak neurri handi batean lorturik itzuli dira Nevadara Anacabetarrak. Agurraren orduan, kexu bat baino ez du izan Anita Anacabek: "Urtea ergin dugu, eta ederto. Baina beste urte bete hemen egongo bagina, orduan bai, guztiz ondo ikasiko zuten euskaraz nire seme-alabek".



ZALDIERO

RENOKO EUSKAL ASTEA

EEBBetako euskaldunak zorioneko izan dira. Euskal Kultur Aste handia egin da Reno, Nevadan. 1959an ere herri berean egin zen lehenengo euskal jaialdi handia: Western Basque Festival, euskal-amerikarren lehenengo agerraldia izan baitzen. 5.000 lagun baino gehiago bildu zen bertan eta, harrezkero, euskaldunek harro erakutsi zuten beren nortasuna.

Berrogei urte dira lehenengo jai hura egin zenetik eta Kultur Astearen antolatzaileek hainbat ekintza antolatu izan zituzten joan den uztaierako. Ondorioz, uztaieraren 19tik 25era, bertako euskal klubak biltzen dituen NABO erakundeak (North American Basque Organizations) urteko biltzarra

egin du Renon. 1959ko jaialdiaren antolatzaileek ere omenaldi beroa jaso dute. Ez dira izan, hala ere, omena jaso duten bakarrak. William A. Douglass antropologo eta Renoko Basque Studies Program-eko koordinatzailea, eta Marcel Tillous, EEBBetako euskaldunen apaizak ere jaso dute antolatzaileen esker ona.

EEBBetako Kultur Aste honetan, azkenik, hitzaldiak, jardunaldiak, bertso-jaialdiak, liburu eta disko azoka, musika jaialdiak, kontzertuak, dantza erakusketa, herri-kirolak e.a. izan dira. Dударik gabe, EEBBetako euskaldunen historian beti ageriko den ekimena izan da. Berrogei urte eta gero ere, historia errepikatu egin da.



Merkataritza kanpaina Leioan



Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuak, "Euskara Merkataritza" izeneko egitasmoa abiarazi du. Egitasmo honen bitartez, Leioako merkataritza sektorean euskarak duen egoera hobetu nahi da, bai arduradun eta langileen euskararen ezagupenari dagokionean, eta bai dendetako euskararen erabilpenari dagokionean ere.

Egitasmoaren helburu da, aurrena, Leioako merkataritza euskarak duen egoeraren berri izatea, eta dauden hutsune eta gabeziak identifikatzea.

Ondoren etorriko dira Leioako merkataritza arloan euskararen erabilera indartzea, merkatarien sarea antolatuz, eta zerbitzuaren kalitatea hobetuz euskararen erabilera kontuan hartuta.

Esaterako, Leioako lau merkataritza establezimendutik batean badago harremanak euskaraz garatzeko aukerarik. Aldiz, hamar dendatik seik izenpetu dute euskara gehiago erabiltzeko konpromisoren bat.

Udaleko Euskara Zerbitzuak, gainera, itzulpen zerbitzua, euskarazko ikastaroak, errotulua ipini edo berriztatze dirulaguntzak eta beste hainbat baliabide eskaini dizkie merkatariei.

Ikastaro eta bideohitzaldiak HABEren eskutik

Prestakuntza-ikastaro ugari antolatu izan ditu HABE euskaltegiak irakasleentzat eta, tartean, bideohitzaldiak ere bai, ikastaro zenbait emango dituzten adituen ardurapean. Euskara-irakasleentzat ez ezik, bestelako bigarren hizkuntza baten irakaskuntzan ari direnentzat ere badira hitzaldiak.

Uztailean hasi ziren eta urria arte iraungo dute ikastaroek. Eusko Jaurlaritzak Donostian, Bilbon eta Gasteizen dituen egoitzetan burutuko dira.

Bertoko eta atzerriko irakasleek zuzenduko dituzte ikastaro eta bideohitzaldiak eta landuko dituzten gaien artean dira, esate baterako: programazioa, hiztegia eta gramatika, irakurketa, mintzamina e.a.

Informazio eta izen-emateak, HABEren Lurralde Ikuskatzailetzan. (Donostia: 943022600, Bilbo: 940381620, Gasteiz: 945017090).

WEB GUNEAK

**BWRDD
YR IAITH
GYMRAEG**

**WELSH
LANGUAGE
BOARD**

Eremu urriko hizkuntza sarean: galesa

Web gune berria jarri du Galesko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzak Interneten, Europako Batzordearen babesean. Gunearen helburua da hizkuntzen sustapena laguntzea Europa osoan, eremu urriko hizkuntzen arteko loturak azkartu eta beren erabilera indartzeko. Horregatik, komunitate plangintzar buruzko zehaztasunak eta hizkuntza lantzeko ekimenak aipatzen dira web gune honetan. Gainera, adin guztietako hiztunentzako mintza praktika ariketak ere ezarri dituzte bertan.

Web gunearen estreinu egunean Galesko Hizkuntza Politikarako arduradun Rhodri Williams-ek adierazi zuenez, “espero dugu ikasle, irakasle, eta alor honetako adituek, European zehar diren komunitateetako jendearekin batera, gero eta gehiago jotzea gune honetara”.

Hiru hizkuntzatan da informazioa: galesez, ingelesez, eta gaztelaniaz. Helbidea, berriz: www.cymuned.org.uk

SAREKO ARGIA Argia on line

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza
Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 80 98
e-posta: M-Meaurio@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

1919an kaleratu zen lehenengo aldiz Zeruko Argia aldizkaria. Kutsu erlijiosoa eta kultur asmoa, biak zituen. Gerra ostean, 60ko hamarkadan, euskal kulturaren berpizkundearen adibide goren izan zen. 1976an, “Euskal Prentsaren Urtea” izan zen hartan, magazine itxura hartu zuen. Harrezkero eutsi dio eite berari, nahiz eta koloretan ari den 1997az gero.

Aurten, 2.000. urtearen atarian, asteak-riak beste urrats bat egin du aurrera teknologia berrien bidean eta Interneten jarri du bere burua: Sareko Argia dugu. Ondorioz, aldizkaria irakurri nahi duenak ordenagailua piztu besterik ez du, kiosko eta liburudendetara joaten ibili beharrik gabe. Era berean, diasporako euskaldunek Euskal Herriari buruzko albisteak astean-astean jasotzeko modu zuzena dute. Horretarako, ondoko helbidera jo baino ez dago: www.argia.com

